

ALLERI

Alleriko 500 etxin eta Ondarruko hirigintzin inguruko aldizkaixe
2010eko iraile | 1. zenbakixe



500 etxin proiektu, epailin aginduz, parata!

Udalak aurrea jarraitzen dau Zaldupetik - Allerirako paseun proiektuaz. Topografuk terrenu markaten egon diz eta eskabadorak hasi diz biharrin.

Epaitegiek onartu dute Alleriko 500 etxebizitzaren proiektuak hutsune asko dituela, eta berau gelditzeko agindu dute, epaiketa hasi bitartean. Horrek agerian laga ditu Udalak hilabete hauetan esan dituen guzurrak. Izan be, 500 etxebizitzaren proiektua arau subsidiario zaharren gainean egin da, eta ekologikoki jasan ezina da. Ezin da justifikatu hainbeste etxe

eraikitzea, herrian bertan etxe tasatuak ezin salduta badabiltza.

Halan eta be, Udalak aurrera jarraitu nahi du proiektuarekin, kosta ala kosta. Batetik, errekurtsioa aurkeztu dio epailearen aginduari. Bestetik, **martxan ipini du Alleriko etxeen proiektuaren lehen fasea, Zaldupe - Alleri pasealekua.** Eskabadorak hasita daude beharrean.

AURKIBIDI

- 2 - alleriko 500 etxik
- 3 - bisoi europarra
- 4 - zaldupe - alleri paseu
- 6 - uxolak
- 7 - krisise
- 8 - mobiu!

ALLERIKO 500 ETXIK PARATA!

Babestutako padura bat ezinddela hiri lurre ixan esan dau epailik

EAEko Epaitegi Gorenan aginduz, plana bertan behera gelditzen da epaiketari amaittu arte



Euskal Autonomi Erkidegoko Auzitegi Gorenak bertan behera laga du behin behinean Alleriko paduran 500 etxebizitza eraikitzeke Ondarroako Udal Gestoraren plan berezia. Epaitegiak kontuan hartu ditu herri mugimenduak aurkeztutako arrazoiak. Besteak beste: plana zahartutako arau subsidiarioen gainean egin dela; Ezin dela IKL-LIC babes ekologikoa daukan espazio bat lur eraikigarri izendatu; edota herrian dauden etxebizitza huts guztiekin, paduran 500 etxe egitea ez dagoela justifikatua (hauetako 316 tasatuak izango dira, eta Kamiñalden Udalak beste 36 etxe tasatu dauzka, ezin salduta, garestiak direlako).

Arrazoi hauek, eta beste asko, behin eta berriro aurkeztu dizkiogu Udal Gestorari, hamaika alegazioen bitartez. Baina sekula ez dute kontuan hartu herritarrek emandako azalpen bat bera be. Udal Gestorak beste interes

batzuekin egin duelako plan hau: interes ekonomikoekin, eraikuntza enpresak diru publikoarekin hornitzeko asmoarekin, hain zuzen be. Egoera honek ondo erakusten du zein den Gestora honen izaera: herritarren eskariei kasurik egin gabe, negozioa egitera etorri dira herrira. Eta oso arriskutsuak dira, herri honentzako eta bere ingurumenarentzako be bai.

Herri mugimenduak egindako ahaleginak gelditu du, momentuz, sarraski hau. Udaleko Gestorako arduradunengatik izan balitz, proiektuak aurrera egingo zukeen, herritarren beharrianak edota legediak kontuan eduki barik. Arau hauste posible bat egin dute ia-ia, modu kontzientean eta herritarrek aurkeztutako arrazoiei kasurik egin barik. Eta arau hauste honen bultzatzaileek izen eta abizenak dituzte: Udal kudeaketa batzordeko kideak dira.

Gainera, ezin dugu ahaztu proiektu honen lehen zatia martxan dagoela oraindik. Udal Kudeaketa Batzordeak Zaldupetik Allerira doan bidean obrak hasi ditu, Alleriko etxeetara gasa, ura, elektrizitatea... eramateko. Baina Auzitegiak 500 etxeen inguruan hartutako erabakiak legitimitatea kentzen die pasealekuko obrei be, bi proiektuen izaera eta eragin sozial eta ekologikoak antzerakoak direlako. Obra horiek ere gelditzea beharrezkoa da! Eta geldituko ditugu!

Gure aldetik, herritarrei dei egiten diegu hurrengo aste eta hilabeteetan burutuko diren mobilizazioetan parte hartzera. Denon esku dago geure padura defendatzea; eta baita diru publikoa onura publikorako erabil dadin eskatzea, edota legitimitaterik gabeko Udal Kudeaketa Batzorde honen jarduera ilunak salatzea.

ALLERIKO ETXIK

| EZTIZ BIR | IRREGULARIDADIK | KALTE EKOLOGIKU |
|---|--|--|
| Herrixan 500 etxe dazelako hutsik, Kamiñaldin 36 etxe tasau ezin saldute, Antsolon mendixe janda eta etxeik ein baik... | Kadukatako arau subsidiaixutan einddako plana. Babestutako paduri hiri lur ixendatute. Epaitegixan susmopin. | Babestutako paduri kaltetu: 500 etxe, 500 familixan giza presinoi, 500 kotxe... kutsadura luminiku, akustiku, ambientala.. |

ERREKURSU

Udalak errekursoa aurkeztu du epailearen erabakiaren kontra, baina ez dio erantzunik eman epaileak egindako galderari: Zelan izango da babestutako gun bat lur urbanoa?

BISOI EUROPARRA

Allerin 500 etxebizitza eginda sortuko den kutsadura luminiko, akustiko eta ambientalak, bisoi europarraren biziraupena kaltetuko du.

35-40 cm inguruko ugaztun gautarra da bisoi europarra. 500 eta 1500 gramo pisatu ditzakeen animalia hau igerilari trebea da eta normalean bakarrik ibiltzeko ohitura dauka.

Bisoi europarra galtzeko arriskuan ipini duten arrazoiak hauek dira: habitata galtzea, ur kutsatuak, aleutiana deritzon gaixotasuna, ibilgailuen harrapatzeak, bisoi amerikar inbaditzailea... Europa osoan, leku gutxitan aurki dezakegu animalia hau, eta horietako bat da Aieriko padura. Baina noski,

hemen egin nahi duten sarraskiak betirako desagertaziko luke gure inguruetatik babestutako animalia hau. Hasteko, bere habitata erabat galduko luke, nahiz eta beste batzuek hori horrela ez dela izango esan. Bestalde, 500 etxebizitza egin ostean, egunero ehundaka kotxe mugituko lirateke inguru horietatik, eta honek bisoia arrapatzea asko erraztuko luke. Gainera, Alleri animalia honek Bizkaitik Gipuzkoara daukan pasabide bakarra da. Beste alde batetik, ezinezkoa izango litzaioke elikatzea, igelak, saguak, insektuak... baitira bere elikagai nagusiak, eta etxeak egin ostean Alleriko paduran bizidun gutxi geratuko baita.

**Bisoi
bat, kotxe
batek zapaldute
Errentexako
bidin**



Europako Batasuneko hainbat herrialdetan espezie hau berreskuratu eta babesteko bidean urratsak ematen ari dira azken urteotan. Gaztela-Leon, Errioxa eta Arabako foru aldundiek, adibidez, 2001 urteaz geroztik, Europako Batasuneko Life programaren diru-laguntzei esker, elkarrekin lanean dihardute bisoi europarra babesteko hiru proiektutan. Iparraldean eta Frantzian ere hainbat kanpaina antolatu dituzte espezie horrek bizirik iraun dezan. Leku guztietan babestea badute helburu, Ondarroan guztiz kontrakoa gertatzen da, bisoiak bizirik jarraitzeko babestea ezinbestekoa den guneak erabat hondatzea baitu helburu Ondarroako udalak, bisoiari betiko agur esanez.

ZALDUPE - ALLERI PASEU OBRA ILEGALAK

Udala urbanizatzen hasi den paseoaren helburu nagusia Alleriko 500 etxeentzako azpiegiturak (gasa, ura, elektrizitatea...) lur azpitik sartzea da.

Alleriko lurrak 'lur urbano' izendatu ziren 1997an, bertan etxeak egiteko. Dana dala, gaur egun Allerrira joan eta argi ikusten da hura ez dala leku urbanoa, eraiki bako padura bat baino. Allerriren izena eta izatea ez datoz bat.

Allerin 500 etxe egiteko lur horiek 'urbanoak' direla justifikatu behar du Udalak. Eta helburu horrekin hasi da urbanizatzen Alleriko pasealekua: lur azpitik herriko azpiegiturak (elektrizitatea, ura, gasa...) Allerrira eraman eta horrela 500 etxeak herriarekin lotuta daudela esateko. Herriaren parte direla erakusteko, 'lur urbano' direla, hain zuzen ere. Baina zelan izango da 'lur urbanoa' babestuta dagoen padura bat? Argi dago Udala berbakin jolasten dabilela, tranpak egiten.

Tranpa hori egitean, erakundeek euren legeak ere ez dituzte bete. Izan be, Allerriren 'lur urbano' izaera 1997ko arau subsidiarioetan agertzen da.

Baina arau subsidiarioak (herria zelan antolatuko den erabakitzen dutenak) 8 urtean behin barritu behar dira. Eta barrikuntza horretan, 8 urtean atera diren lege barriak kontuan hartu behar dira. Ondarroako arau subsidiarioak orain dela urte batzuk aldatu behar ziren, eta aldaketa horretan Hezeguneen legea-eta sartu behar ziren. Hezeguneen Lege horrek argi esaten du Alleri babestutako padura bat dela. Orduan, arau subsidiarioak barrituko balira, ezinezkoa izango litzateke Alleri 'lur urbano' modura izendatzea, eta ezingo liriteke 500 etxe egin bertan.

Baina, zer egin du Udalak? Arau subsidiarioak ez ditu barritu, Hezeguneen legeari ez dio kasurik egin eta etxeen eta paseoaren proiektuak kadukatutako planoen gainean egin ditu, modu ilegalean.

Halan eta be, paseo honek irregulartasun gehiago be badauzka. Adibidez, ibilbidearen zati bat Kostasen ardurapeko lurretatik pasatzen da. Baina


oraindik ez dute Kostasekoen baimenik lortu.

Gainera, obra hauekin paseo guztian zehar farolak ipini nahi dituzte eta proiektuan ez dute aipatzen farola hauen argiak padurako fauna eta flora kaltetuko dituela. Zelako eragina izango du argi horrek, gauzez ateratzen den bisoi europarrarentzako? Eta ezin da ahaztu animalia hori desagertzeko arriskuan eta babestuta dagoela.

Horretaz aparte, Udalak 821.607 € gastatuko ditu diru publikotik, paseo hau zementatzeko. Herrian ez dago beste preminarik, lehendik ere ondo dagoen pasietan ibiltzeko bide bat barriri aldatzea baino? Dirutza horrek argi erakusten du Alleriko proiektu osoaren atzean dagoen interes ekonomikoa. Diru publikoarekin konstruktora pribatuak finantziatzen ibili dira azkenengoko urteetan, eta bide bardinetik jarraitzeko asmoa daukate.

| DATO KEZKAGARRIXENAK: | DIRUTZI | ILEGALAK | BAIMENIK EZ | BABESTUTE |
|-----------------------|---|---|--|---|
| | 821.607 euro gastako dabe diro publikutik, mendiko paseo bat arreglateko bakarrik | Kadukatako arau subsidiarun gainin einddako proiektu bat da | Costasen baimenik eztabe jaso ondiokan | Obrak babestutako padura baten nahi diz ein |

OBRA ILEGALAK



lur
azpitxik
tubeixak jungo
diz



AZPIEGITURAK

Helburu nagusixe ezta paseu konpontzi, lur azpitxik Alleriko etxitako azpiegiturak sartzi baino (gasa, ure, elektrizidadi...)

KONTAMINAZINOI

Obran zaatik eta ipiniko dizen farolan argixak padurako ekosistemi kaltetuko dau. Eta paduri Europak babestutako gune bat da.

UXOLAK

Allerik uxoletatik babesten gaitu



2010eko
ekaineko
uxolak



Ekainean egondako uxolek argi laga dute: Allerik uxoletatik babesten gaitu

EHUko ikerlari batzuek argitaratu zuten ikerketa baten arabera, aldaketa klimatikoaren eraginez itsasoaren maila igotzen joan da XX. mendean zehar eta horrela jarraituko du etorkizunean ere.

Padura eta hezeguneak, ura xurgatzeko duten ahalmenagatik, etorkizunean etorri daitezkeen uholdeei aurre egiteko balio handikoak ditugu, batez ere ibaien ondoan herritar asko bizi direla kontutan hartzen badugu. Urtero Euskal Herrian zehar izaten ditugun uholdeak ditugu adibidez; paduren gainean eraikitako auzoetan ibaietako urak gainez egiten duenean euriteak direla eta, auzo horiek urak estalirik gelditzen dira, urak gainez egiteko leku naturalak baitziren aurretik bertoneuden padura eta hezeguneak.

Errenteria auzoak uxolekin dauzkan arazoak, adibidez,

ibaiaren artifizializazioarekin dauka zerikusia. Artibai ibaiaren lurrik baxuenak urbanizatu egin dira, industriaguneak egiteko, eta han hazten ziren urak orain ibaian behera joaten dira.

Ur handiei aurre egiteko beste metodo artifizial batzuk, ibaiaren dragaketak adibidez, emaitza arriskutsuak edukitzen dituzte, ibaiaren abiadura handitzen baitute, eta uxolak indartsuagoak izaten baitira.

Padurak dira uxolei aurre egiteko modu natural eta eraginkorrena. Urek bertan egiten dute gainezka eta ibaiaren indarra txikitu egiten da. Aurtengo uxolek ere hori erakutsi dute: Alleri urez gainezka ikusi dugu.

Hala ere, agintariak beste alde batera begiratzen dute, eta eraikuntza enpresek euren poltsikoak betetzeko behar duten babesa emateaz besterik ez dira arduratzen. Allerin etxebizitzak egiten badira, nork babestuko gaitu neguan uxoletatik?



Alleri uxolakin
eta uxolik baik



KRISISE

GLOBU: Bazan behin super-Europa, haxe potentzixa ekonomiku, beti hazi, beti hazi eta inoiz ez zana parako. Banko Zentralak interesak behian manteniuten zittun, holan banko pribauk kredituk oso merke emoten zitxuezen eta merkatun diro abarra ipintxen zan mobimientun. Egoera perfektu, diru hamendik ata eta bestin sartu eta “ésta me la llevo por que quiero yo” etxen ekixen jentintzako. Eta zelan ez, urtero urtero inbertzinoi gorutz ixun. Gerua ta negozixo gexa sortzen zin eta danok pozik mogolloi pasta euanelako jentintzat. Eta ordun, jentik gexa erosi, eta enpresan akzinoik altza, eta ordun gexa inbertiu jentik eta ordun akzinoik ondiokan gexa altza, eta ordun jentik gexa inbertiu eta...

GLOBU ESPLOTA: Asuntu de, inbertsinoi semi-debalde danez, edozetan inbertiuten dala, eta jentik bir ez daben zerbizixo asko sortzen dizela (kasurako: populazinoi berutz duzen herrixetan etxik etxi). Eta horrek zelan ez beran buelti auke: momento baten esaten dau jentik, “zelan pagakot

horrenbeste X-eatxik, mogolloi X bara???”. Eta esatendau “paso erosti”. Ordun eztanez saltzen, akzinoik baja etxen diz eta jentik inbertsinoi erretiraten dau (gexa baja baino arina), ordun akzinoik gexa bajaten di, eta ordun jente gexauak inbertsinoi ata, eta ordun gexa baja eta...

LEHENGUSISMU: Gauzak beran lekure juten lagako balitxakez, ba alperrikako negozixo guztik pikea jungo litxakez eta listo. Baine pasaten dana da, interesak bajo manteniuten zitxuezen agintarixak, inbertsinoi laguntzen benak... eurak be enpresetan zatixak hartzen jun zinela, eta enpresaxuk politikun lengusuk bihurtu zinela (Josu Jon adibibeik onena, aginte politiku eta ekonomikun arteko matxinsaltismu ikusteko). Ta

karo, on agintarixak eztabe nahi onek enpresok pikea juti. Gainea, La Voa-konstruktor moskea etxen da politikuk jamonik ezpatse eitten (lehengusukin ondo erun bir de). Ordun, ze etxen dabe super autoridadik? Ba segi inbertsinoi inutile bideratzen, larotasei rotonda, AHT, Alleriko

etxik... eta lengusuk pozik geatzen diz.

KRISISE: Karo, baine inbertsinoi inutile eruten bara aurea ta diru merkaturatzen barabe billurrik baik, prezixuk altzaten diz. Gainea, inpuetuk ondiokan gexa altza bir diz (IVA..). Eta halan da be, enpresa-lehenguso horrek biharrin segi etxi de prioridadi. Ba bi gauza ein leikez, ero Txekia jun esplotatea, ero hamengo langilin soldatak baja enpresa-lehenguso inutilak martxan segi ahal ixateko (osea, irabazixak eukitxen jarraitzeko). Ta soldatak bajateko zer ein... ba esan “KRISIS!!!!” (urte guztin tzir), jentik esateko “hamen zeoze enbikora ba...” ta gero mundialaz batea reformi sartu despido errazten eta jubilazinoi atzeatzen.

GAUZIRE ZE: Kapitalismo purun, gobernuk ezingo ban enpresai lagundu holanik. Sozialismo purun, enpresak ezingo ben politiki holanik maneja. Baine “ongizate – estatu demokratikun” bixi gazenez, hamen erose pasa leike!

MOBIU!



DANON ARTIN PARAKOU!

Laster mobilizazinoi gehixa. Adi egon!
Eta zeuk be zeure era, pentsa eta ein.

WWW.BLOGAK.COM/AIERI

